

Mugituz



UXUE APAOLAZA LARREA

Dotore jantzita zegoen, autobus geltokian eserita, eskuak makuluan jarrita, ile urdina bilduta, hutsari begira. Han zegoen iritsi nintzenez. Ez zion ordulariari behin ere begiratu. Emeki altxatu zen, ordubete geroago (lehen ordu erdi litzateke), autobusa iritsi zenean, eta gainerakoon ezinegonetik urrun, presarik gabe eman zituen pausoak eskailerarantz, eserlekurantz. Tira, asteburua zen, buelta trenez egin behar genuen, hainbesteko suspenserik gabeko ordutegidun batean.

Hurrengo batean, etxera itzuli behar genuela, hango geltokian pilatu ginen herriko zenbait pertsona. “Noiz pasako da autobusa?”. Interneten laurden gutxitan dio, markesinako paperak puntuan, baina gure begiz ikusi dugu hoge gutxitan bat nola pasa den. Tira, asteburua da oraingoan ere. Beste behin, ordea, ilunduta harrapatu gintuen jolasak, ordubete generaman erdibideko geltoki batean, eta ez zuen handik ezer pasako zen itxurarik, markesinako paperak kontrakoa esan arren. Goazen oinez behatzak moretzen hasi aurretik, ezin dut umea hemen Sanitas aurrean izozten utzi. Tira, berriro, asteburua da, eta umearentzat abentura bat izan da errepide ertzetik ilunpean ibiltzea.

Ezin dugu edonora oinez iritsi. Ezin dugu denok bizikletaz ibili. Distantzia batzuk ezin dira patinetez egin. Mugikortasunerako eskubidea mugiarazten gaituztenek greba egiten dutenean baino ez da arazo, dirudienez. Autobusetako murrizketek egiten diren momentuan sortzen dute zuzendariari gutunen bat, tokiko egunkari batean, hitz ozenen bat udaleko plenoan. Ziur, defizitario hitza entzungo den batean. Defizitarioago murrizketaz murrizketa.

“Kotxea behar dugu” izan zen bidelagun nuenaren ondorioa umeari eskutik helduta. “Bai”, erantzun nion nik. Ez da elektrikoa izango. Emakume dotorea ez da herritik irtengo, markesinan geratuko da, defizitario. ●



ADUR

Motzean

Donibane Garaziko sarreretako batean, Arnegitik datorren errepidean, euskarazko kartela frantsesezkoaren gainean jarri du Herribiltza taldeak, “euskararen bizirik irautearen aldeko auzolanari” segida emanez.

Arabako metalgintzako grebak bertan behera utzi dituzte, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek patronalarekin aurreakordioa lortuta. ELAK ez du proposamena onartu.

Alemaniaiko gas hornitzaileak handiena nazionalizatuko du gobernuak. 8.500 milioi euroko galera pilatu du enpresa pribatuak.

BPGa kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzak unibertitate publikora bideratzen duen finantzazioa Europa, Espainia eta Frantziako batez bestekoa baino txikiagoa da, dio ELAK.

Osasunbideko 350 langile kaleratu dituzte Nafarroako Gobernuak eta Osasun Departamentuak, LAB sindikatuak salatu duenez.

Errusiako presidentek “aberria babesteko” 300.000 erreserbista mobilizatzeraz deitu ostean, protestak egin dituzte herrialdean. Atxilotu ugari izan dira.

Leitzan beste eraso faxista bat (denbora gutxian hirugarrena) gertatu dela salatu du Udalak, “oraingoa ezaugarri arrazista eta ikur naziekin”.